**ERABAKIA, 2018ko ekainaren 29an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarena, Garapen Iraunkorra helburu duten Unibertsitate Lankidetzako Proiektuetarako laguntzen deialdia argitaratzeko**

*Nazio Batuen batzar orokorrak 2015eko irailean onetsi zuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Agenda honek iraunkortasuneranzko ikuspegi eraldatzailea dakar eta garapen iraunkorrera 17 helburu (GIH) eta 169 helmuga integratu eta banaezin planteatzen ditu, iraunkortasunaren ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioak luze zabal hartzen dituztenak.*

*2030 agenda dugu Nazio Batuen erakundeak berak eta agenda sinatu zuten 193 estatu kideek lanerako baliatu beharreko erreferentzia eta gida. Loteslea da eragile guztiekiko (gobernuak, sektore pribatua, gizarte zibil antolatua, bai eta akademia bera ere); sustatu behar baita komunitate behartsuenen ekonomia eta gizarte hazkunde iraunkorra eta sustatu zein bere jardute eremuetan.*

*2030 Agenda unibertsitatearen testuinguruan inplementatzeak berekin dakar GIH helburuei unibertsitate politiketan zeharka ekitea eta ekintza arlo desberdinetan integratzea: irakaskuntza, ikerkuntza eta unibertsitate hedakuntza. Jakin badakigun arren jakintza ezinbestekoa dela gizarteen garapenerako, pertsonak dira egiazko eraldaketa dakartenak. Ildo honetatik, deialdi hau unibertsitateko kideak mugiarazteko sortu da, gizarte justuago eta iraunkorrago bat lortze aldera.*

***RESOLUCIÓN de 29 de junio de 2018 del Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural por la que se convocan Ayudas para Proyectos de Cooperación Universitaria para el Desarrollo Sostenible***

*La Asamblea General de Naciones Unidas aprobó en septiembre de 2015 la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Esta agenda establece una visión transformadora hacia la sostenibilidad y plantea 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y 169 metas de carácter integrado e indivisible que abarcan las dimensiones económica, social y ambiental de la sostenibilidad.*

*La Agenda 2030 es la guía de referencia para el trabajo de la institución y de los 193 estados miembros que la suscribieron. Compromete a todos los actores (gobiernos, sector privado, sociedad civil organizada, y también a la academia) en aras a impulsar el crecimiento económico y social sostenible de las comunidades más desfavorecidas, a través de los ámbitos de actuación que les son propios.*

*La implementación de la Agenda 2030 en el contexto universitario implica abordar los ODS de forma transversal en las políticas universitarias e integrarlos en los distintos ámbitos de acción: formación, investigación y la extensión universitaria. Si bien el conocimiento es fundamental para el desarrollo de las sociedades, son las personas las que las transforman. En este sentido, esta convocatoria surge con vocación de movilizar a la comunidad universitaria en la consecución de una sociedad más justa y sostenible.*

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) iraunkortasunarekin duen konpromiso instituzionala, batetik, giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta finantzakoak hornitzean datza, GIHak lortzera bideratutako lankidetza proiektuak burutzeko; eta, bestetik, unibertsitateko sektore guztiek lankidetza eta solidaritate jardueretan izan beharreko parte hartzea etengabe sustatzean.*

*Deialdi hau, UPV/EHUk garapen iraunkorrera bideratutako unibertsitate lankidetzarekin duen konpromisoaren lekuko da, ikasle, irakasle-ikertzaile (IRI) eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren (AZP) esku jarriko baititu, garapen iraunkorreraranzko aldaketak sortzen lagundutako proiektuak martxan jarri ahal izateko bitartekoak*

*El compromiso institucional de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) con la sostenibilidad se materializa, por un lado, en la dotación de medios técnicos, humanos y financieros para llevar a cabo proyectos de cooperación que favorezcan la consecución de los ODS; y por otro, en el continuo estímulo a la participación y compromiso de todos los sectores de la comunidad universitaria en las actividades solidarias y de cooperación.*

*Esta convocatoria concreta el compromiso de la UPV/EHU con la Cooperación Universitaria para el Desarrollo Sostenible, poniendo a disposición del alumnado, del Personal Docente e Investigador (PDI) y del Personal de Administración y Servicios (PAS), los medios para que pongan en marcha proyectos que puedan contribuir a generar cambios para el desarrollo sostenible.*

## GARAPEN IRAUNKORRERAKO UNIBERTSITATEAREN LANKIDETZA-PROIEKTUEN DEIALDIAREN OINARRIAK

### Lehenengoa.- Helburua.

*1.1. Deialdi honen bidez, UPV/EHUko unibertsitateko kideek irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta jakintzaren transferentziaren eremuetan garapen iraunkorra helburu luketen unibertsitate lankidetzarako proiektuak finantzatzeko laguntzak ematea arautu nahi da norgehiagokako erregimenean eta irizpide objektiboetan oinarrituta; beti ere, pertsonen oinarrizko eskubideak bermatuko luketen gizarte zuzen, bidezko eta solidarioa garatzen lagunduko dutelako, bai eta banakoen bizi baldintzak eta heziketa hobetzen eta gure planeta babesten ere.*

*1.2. Deialdi honek laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu*

## *BASES DE LA CONVOCATORIA DE PROYECTOS DE COOPERACION PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE*

### *Primera. - Objeto*

*1.1. El objeto de la presente convocatoria es regular el procedimiento de concesión de ayudas en régimen de concurrencia competitiva y objetividad, destinadas a financiar proyectos de cooperación universitaria para el desarrollo sostenible realizados por miembros de la comunidad universitaria de la UPV/EHU, en el ámbito de la docencia, la investigación y la transferencia de conocimiento, que contribuyan al desarrollo de una sociedad más equitativa y solidaria que garantice los derechos fundamentales de las personas, y que contribuyan a mejorar sus condiciones de vida y su formación, así como a preservar nuestro planeta.*

*1.2. Esta convocatoria ofrece ayudas económicas para financiar total o*

*garapenerako lankidetza- zein hezkuntza-proiektuak osorik edo zati batean finantzatzeko, UPV/EHUko unibertsitateko kideek burutuko dituztenak honako arlo hauetan:*

*a) Hezkuntza hegoaldeko herrialdeetan: gizakien hezkuntza maila, giza baliabideen prestakuntza, unibertsitate prestatzaileen prestakuntza... hobetzen laguntzen duten proiektuak.*

*b) Garapen iraunkorra sustatzeko ikerkuntza: Giza ongizatea eta GIHak lortzera bideratutako inpaktu zehatz eta zuzenak lortu gura lituzketen ikerketa proiektuak.*

*c) Informazio, jakintza eta teknologiaren transferentzia: herrialde jasotzaileek ikerketa, berrikuntza edo tokiko baldintzetara teknologia egokitzeko beren gaitasunak garatzeko, aholkularitzarako eta proiektuak garatu, identifikatu eta ebaluatzeko programei eta besteri laguntza teknikoa emateko proiektuak.*

*d) Hegoaldeko herrialdeetako Unibertsitateen sendotze instituzionala: beren gaitasun eta potentzialtasun akademiko eta gestiokoak (azpiegiturak, ekipoak eta bestelako bitartekoak ematea, aholkularitza teknikoa) hobetzera bideratutako proiektuak.*

*e) Garapenerako hezkuntza (GH): GHrako berezko estrategia bat edo batzuen inguruko proiektuak (sentiberatzea, hezkuntza eta irakaskuntza, ikerkuntza, eragin politikoa eta gizarte mobilizazioa), unibertsitate komunitatearen beraren kontzientzia eta, gizarte eraldaketarako ekintzetako parte hartzea sustatzea helburu hartuta.*

*f) Talde baztertuen edo gizarte bazterkeriaren arriskuan diren taldeen*

*parcialmente proyectos llevados a cabo por personas de la comunidad universitaria de la UPV/EHU en los ámbitos de:*

*a) la formación en países del Sur: proyectos que posibiliten mejorar los índices educativos de la comunidad destinataria, la formación de personas, formación de formadores universitarios, etc.*

*b) la investigación destinada al desarrollo sostenible: proyectos de investigación dirigidos a obtener impactos concretos y directos para el bienestar humano y la consecución de los ODS.*

*c) la transferencia de información, conocimiento y tecnología: proyectos dirigidos a que los países destinatarios puedan desarrollar sus propias capacidades de investigación, innovación o adaptación tecnológica a sus condiciones locales; actuaciones de asesoramiento y apoyo técnico a programas de desarrollo e identificación y evaluación de proyectos.*

*d) el fortalecimiento institucional con Universidades de países del Sur: proyectos dirigidos a mejorar sus capacidades y potencialidades académicas y de gestión (infraestructuras, entrega de equipos y otros recursos, asesoramiento técnico).*

*e) la Educación para la transformación: proyectos relacionados con una o varias de las estrategias propias de la EpD (sensibilización, formación y docencia, investigación, incidencia política y movilización social) dirigidos a concienciar y promover la participación de la comunidad universitaria en acciones de transformación social.*

*f) la inclusión de grupos excluidos o en riesgo de exclusión social: proyectos dirigidos Acciones destinadas a*

*inklusioa: Baztertutako edo gizarte bazterkeriaren arriskuan diren populazio taldeei bideratutako esku hartze proiektu edo ekintzak, migratzaile eta errefuxiatuak bezala.*

*1.3. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira oinarrizko ikerketara soilik bideratutako proiektuak.*

**Bigarrena.- Eskatzaileak**

*2.1. Deialdi honetan parte har dezakete:*

- *UPV/EHUren IIP eta AZP langileek, proiektuak aurkeztu ahal izango dituztenak banaka edo taldean (kasu honetan, jardueraren arduradun bat izendatuko da). Eskatzaile gisa ageri den pertsona proposatutako proiektuan zuzenean parte hartuko duenetako bat izan beharko du.*
- *UPV/EHUren Elkarteen Erregistroan izena emandako unibertsitateko elkarteek, proiektuak bakarka edo UPV/EHUren Sail, Eskola, Fakultate eta gainerako administrazio- edo akademia-unitateekin batera aurkeztu ahal izango dituztenak.*

*2.2. Aurreko taldeek proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeekin (GGKE) edo beste irabazi asmorik gabeko elkarte batekin batera, behar bezala izena emanda badaude Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroren batean eta UPV/EHUrekin lankidetza-hitzarmen bat badute edo bi urtetik gorako esperientzia badute UPV/EHUren sektoreek zuzenean parte hartutako jardueretan.*

**Hirugarrena.- Finantzaketa**

*3.1. Deialdi honetarako aurrekontua*

*intervención dirigidas a grupos de población excluidos o en riesgo de exclusión social, como las personas migrantes y las refugiadas.*

*1.3. Quedan excluidos de esta convocatoria los proyectos destinados estrictamente a investigación básica.*

***Segunda. - Solicitantes***

*2.1. Podrán participar en esta convocatoria:*

- *El PDI y PAS de la UPV/EHU, que podrán presentar proyectos individualmente o en grupo (designando, en este caso, a una persona responsable de la actividad). Quien figure como solicitante habrá de ser una de las personas que participarán directamente en la realización del proyecto propuesto.*
- *Las asociaciones universitarias inscritas en el Registro de Asociaciones de la UPV/EHU, que podrán presentar proyectos de forma individual o junto con Departamentos, Escuelas, Facultades y demás unidades administrativas o académicas de la UPV/EHU.*

*2.2. Los colectivos anteriores podrán presentar proyectos junto con Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo (ONGD) u otro tipo de organizaciones sin ánimo de lucro que se encuentren debidamente inscritas en el registro correspondiente de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) y que tengan vigente un convenio de colaboración con la UPV/EHU o cuenten con experiencia de más de dos años en actuaciones en las que hayan participado directamente sectores de la UPV/EHU.*

***Tercera. – Financiación***

*3.1. El presupuesto destinado a esta*

*3945 066 4800 aurrekontu sailean dago. Lehenengo ordainketari dagokion zenbatekoa UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoaren 2018 aurrekontuari dago lotua eta bigarren ordainketari dagokiona (26.000 €) 2019ko aurrekontukoa da.*

*convocatoria se encuentra en la partida presupuestaria de 3945 066 4800 y asciende a un total de 52.000 €. El monto correspondiente al primer pago (26.000 €) está vinculado al presupuesto 2018 de la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU y el correspondiente al segundo pago (26.000 €) estará vinculado al presupuesto 2019.*

*3.2. Puntuaziorik altuena jasotzen duten proiektuak finantzatuko dira, kreditua agortzen den arte. Nolanahi ere, gutxienez 50 puntu jasotzen ez duten proiektuak ez dira kontuan hartuko, eta, beraz, ez dute finantzaketarik lortuko.*

*3.2. Serán financiados los proyectos que reciban mayor puntuación hasta agotarse este crédito. En cualquier caso, todos aquellos proyectos que no obtengan una puntuación mínima de 50 puntos no serán tenidos en cuenta y, por tanto, no obtendrán financiación.*

*3.3. Ebaluazio-prozesuan ikusiko balitz proiektuetan aldaketak sartuz gero hobeto egokituko liratekeela deialdiaren helburuetara, eskatzaileei iradokiko zaie aldaketa horiek gogoan hartzeko. Horrez gain, ebaluazio-prozesuan proiektuaren arduradunarekin elkartzea eskatu ahal izango da, eskaeraren inguruko azalpenak eta xehetasun osagarriak biltzeko asmoz.*

*3.3. Si en el proceso de evaluación se observara que mediante la introducción de modificaciones en los proyectos propuestos puede conseguirse una mejor adaptación a los objetivos de la convocatoria, se sugerirá a las personas solicitantes la introducción de dichas modificaciones. Adicionalmente, en el proceso de evaluación se podrá requerir la presencia la persona responsable del proyecto con el fin de recabar explicaciones y detalles adicionales de la solicitud.*

*3.4. Proiektua zati batean onartzen den kasuan, eskatzaileak edo eskatzaileek 10 egun naturaleko epea izango dute haren birformulazio bat aurkezteko, alderdi teknikoa nahiz ekonomikoa jasotzen dituena, eta beharrezko jarduerak eta baliabideak egokituko dituzte proposatutako helburuak eta espero diren onurak lortzeko onetsi den diru-kopurura.*

*3.4. La dotación máxima por proyecto seleccionados será de 15.000 €. En el caso de que el proyecto sea aprobado parcialmente, la persona o personas solicitantes dispondrán de un plazo de 10 días naturales para presentar una reformulación del mismo tanto en términos técnicos como económicos, ajustando las actividades y los recursos necesarios al monto aprobado para la obtención de los objetivos propuestos y los beneficios previstos.*

*3.5. Laguntzaren kontura ordaindu ahal izango dira honako gastu haueк:*

- *Ekipoen eta hornigaien erosketa eta garraioa, material suntsigarria, material inbentariagarria eta material bibliografikoa.*

*3.5. Con cargo a la ayuda se podrán sufragar los siguientes gastos:*

- *Compra y transporte de equipos, suministros, material fungible, material inventariable y material bibliográfico.*

- *Hegoaldeko herrialdeetako langileen kostuak, EAEra etortzen direnean: bidaia-txartelak, aseguruak eta bisak, ostatua.*
- *EAEko langileen kostuak, Hegoaldeko herrialdetara joaten direnean: bidaia-txartelak, aseguruak eta bisak, ostatua eta mantenua (mantenua soilik graduondoko eta graduko azken urteko ikasleentzat).*
- *Gaikuntza- eta prestakuntza-kostuak: prestatzaileen ordainsariak eta joan-etorriak eta prestakuntzarako materialak.*
- *Kontratazioak, hau da, zerbitzuak eta kanpoko langileak lan zehatzak egiteko, eta diseinu-, produkzio-, inprimatze-, banaketa- eta itzulpen-kostuak.*
- *Eskatzailearen edo/eta tokiko bazkideen administrazio-gastuak.*

*3.6. Diru-laguntzak beste laguntza batzuekin batera daitezke, baina ezingo da ezein kasutan gain-finantzaketarik gertatu.*

*3.7. UPV/EHUren IIP eta AZP langileen kasuan, proiektuaren eskatzaile edo parte-hartzaile izan, ezingo dira ezein kasutan emandako laguntzaren kontura ordaindu:*

- *ordainsariak prestakuntza-ikastaroak emateagatik*
- *mantenu-dietak (graduondoko eta graduko azken urteko ikasleentzat izan ezik)*
- *administrazio-gastuak*

*3.8. Proiektuaren garapen eta funtzionamendutik erator litezkeen administrazio-gastuak, eskatzailearenak nahiz tokiko bazkidearenak, zeharkako kostuen barruan sartuko dira, eta ezingo dira ezein kasutan UPV/EHUri eskatutako kostu zuzenak baino % 10etik gorakoak izan. Erakunde eskatzailearen edo tokiko bazkidearen administrazio-gastuak proiektua aurrera eramateko*

- *Costes de personal de países del Sur, cuando se desplaza a la CAV: billetes de viajes, seguros y visados, alojamientos.*
- *Costes de personal de la CAV, cuando se desplaza a países del Sur: billetes de viajes, seguros y visados, alojamientos y manutención (la manutención, sólo en el caso de estudiantes de posgrado y último año de grado).*
- *Costes de capacitación y formación: honorarios y desplazamientos del personal formador y materiales para la formación.*
- *Contrataciones, que incluyen servicios y personal externos para la realización de trabajos específicos y costes de diseño, producción, impresión, distribución y traducción.*
- *Gastos administrativos del solicitante y/o del socio local.*

*3.6. La subvención es compatible con otras ayudas, pero en ningún caso podrá producirse la sobre financiación.*

*3.7. En el caso del PDI y PAS de la UPV/EHU, sea solicitante o participante en el proyecto, en ningún caso podrán sufragarse con cargo a la ayuda otorgada:*

- *los honorarios por impartir cursos de formación.*
- *las dietas de manutención (excepto en el caso de estudiantes de posgrado y último año de grado).*
- *los gastos administrativos.*

*3.8. Los gastos administrativos, tanto de la entidad solicitante como del socio local, que pudieran derivarse del desarrollo y funcionamiento del proyecto estarán incluidos dentro de los costes indirectos, lo cuáles en ningún caso podrán ser superiores al 10% de los costes directos solicitados a la UPV/EHU. Se considerarán gastos administrativos de la entidad solicitante o socio local aquellos gastos imprescindibles para la ejecución*

*ezinbestekoak diren gastuak izango dira (argi- eta ur-gastuak, papertegi-gastuak, erakundeek bulegoak alokatzeagatik ordaindutakoak, etab.)*

**Laugarrena.-Proiektuen baldintzak**

*4.1. Arduradunak aurkeztuko du proiektuaren eskaera eta pertsona horrek ezin izango du proiektu bat baino gehiago aurkeztu, ez eta deialdi bereko beste proiektuetako lan taldeetan parte hartu ere.*

*4.2. Proiektuak abian jarri ahal izango dira esleipen erabakia argitaratzeaz batera eta ezin izango dira 15 hilabetetatik gora luzatu, aipatutako erabakia argitaratuko denetik hasita. Proiektuaren hasiera eta amaiera datak erabakia horren argitalpena argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete bat iragan baino lehen jakinarazi beharko zaio UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoari idazki bat bidalita.*

*4.3. Proiektuek pertsona eta komunitateen sustapen eta garapena izan behar dituzte helburu. Beraz, horien identitate historiko eta kulturala errespetatuko dute, eta iparraldeko herrialdeekiko mendekotasun-erlazioak sortu edo indartzen dituzten jokaerak saihestuko dituzte, bai eta egungo sistemarekiko jarrera kritiko eta balioak sustatu eta unibertsitate komunitatearen kontzientzia kritiko eta solidarioa sortzeko proiektuak lagunduko ere.*

*4.4. Proiektuko lan taldeak, a) eremuaren kasuan, burutuko diren lekuan arduradun, bazkide edo kontraparte bat izan behar dute. Pertsona hori fisikoa edo juridikoa izan daiteke, populazio onuradunaren bidezko interesak ordezkatuko ditu eta proposatutako helburuak lortzeko nahiko bermea eskaini beharko du.*

*4.5. Proiektuaren hartzailea den herritarren parte-hartze zuzena eta*

*del proyecto (gastos de luz y agua, gastos de papelería, gastos por alquiler de locales de las entidades, etc.)*

***Cuarta. - Requisitos de los proyectos.***

*4.1. La solicitud del proyecto deberá ser presentada por la persona responsable del mismo, sin que esa misma persona pueda presentar más de un proyecto ni formar parte de los equipos de trabajo de otros proyectos de esta convocatoria.*

*4.2. Los proyectos podrán comenzar a ejecutarse desde la publicación de resolución de la adjudicación y no podrán extenderse más de 15 meses desde la publicación de la citada resolución. Deberá enviarse un escrito notificando a la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU la fecha de comienzo y finalización del proyecto antes de que transcurra un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta resolución.*

*4.3. Los proyectos tendrán como objetivo la promoción y el desarrollo de personas y comunidades, respetando su identidad histórica y cultural, y evitando actuaciones tendentes a generar o reforzar relaciones de dependencia con los países del Norte, así como la promoción de valores y actitudes críticas y solidarias en la comunidad universitaria.*

*4.4. En el caso del ámbito a) el equipo del proyecto contará con una persona responsable, socia o contraparte en el lugar de ejecución de los proyectos, que podrá ser tanto una persona física como jurídica, que represente legítimamente los intereses de la población beneficiaria y que ofrezca garantías suficientes para la consecución de los objetivos propuestos.*

*4.5. Los proyectos contarán con la participación directa y activa de la población destinataria del proyecto.*

*aktiboa izango du.*

*4.6. Kudeatu egingo da hirugarrenentzat zeharka sortzen diren onurek (besteak beste, langileen kontratazioa, materiala eta ekipoak erostea, etab.) bertako eskualde ekonomikoan eta proiektua egingo den herritarrengan eragiteko moduan, ahal den neurrian.*

*4.7. Ondorio praktiko, ebaluagarri eta kuantifikagarri bat izan beharko du proposatutako biztanleria onuradunarengan.*

*4.8. UPV/EHUko unibertsitateko kideen parte-hartzea bultzatu, erraztu eta bideratuko du proiektuan.*

*4.9. Proiektuak 2030 Agendaren GIHak lortzera bideratuko dira eta unibertsitateek garapenerako lankidetzaren arloan adostutako jokabide kodeak ezarritako irizpideei jarraituko.*

*4.6. Los proyectos serán gestionados de forma que los beneficios a terceros que indirectamente se generen (tales como la contratación de personal, adquisiciones de material y equipos, etc.) recaigan en la medida de lo posible en las propias zonas económicas y áreas de población donde se ejecutará el proyecto.*

*4.7. Los proyectos deberán tener una repercusión práctica, evaluable y cuantificable en la población beneficiaria propuesta.*

*4.8. Los proyectos estimularán, facilitarán y canalizarán la participación en el proyecto de la comunidad universitaria de la UPV/EHU, especialmente del alumnado.*

*4.9. Los proyectos deben estar encaminados a la consecución de los ODS de la Agenda 2030 y orientados por los criterios establecidos en el Código de Conducta de las Universidades en materia de cooperación al desarrollo.*

**Bostgarrena.- Eskaeren aurkezpena, epeak eta dokumentazioa**

*5.1. Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da Garapenerako Lankidetza Bulegoaren web-orrian erabaki honen argitalpena egin eta hurrengo egunetik* **2018ko uztailaren 19ra arte (hori ere barne).**

*5.2. Dokumentazioa*

*<u>a) Orokorra:</u> Oinarri hauetan* **I Eranskin** *gisa agertzen den inprimakian eskatutako datu guztiak bete beharko dira, eskatutako dokumentazioarekin batera eta hala egin ezean, Batzorde Ebaluatzaileak kanpoan utz dezake proiektua ez bada 7. atalean zehaztutako epean arazoa konpontzen. Arestian aipatutako inprimakia, eskuragarri dago UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoaren web-orrian ere.*

***Quinta. - Presentación de solicitudes, plazos y documentación***

*5.1. El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde el día siguiente a la publicación de esta resolución en la Página web de la Oficina de Cooperación al Desarrollo* ***hasta el 19 de julio de 2018 (inclusive).***

*5.2. Documentación*

*<u>a) General:</u> Deberán cumplimentarse todos los datos solicitados en el formulario que aparece como* ***Anexo 1*** *a estas bases, aportando la documentación requerida y cuya omisión podrá ser causa de exclusión por parte de la Comisión Evaluadora si no subsana en el plazo establecido en el apartado 7. Los formularios mencionados anteriormente, también está disponible en la página web de la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU.*

*b) Espezifikoa, unibertsitate Elkarteentzat eta GGKEentzat: erakunde horiek aurkeztu beharko dute, gainera, ale bakarrean edo eskaerari erantsitako fitxategietan honako dokumentazio hau:*

- *Elkartearen edo erakundearen identifikazio-datuak*
- *Estatutuen fotokopia*
- *UPV/EHUren elkarteen erregistroko izen-emate ziurtagiria edo EAEko irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroren batekoa*
- *Erakundearen legezko ordezkaritza duen pertsonaren egiaztapen-agiria*
- *Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela adierazten duen ziurtagiria.*

*5.3. Eskaerak UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Unibertsitate honetako Garapenerako Lankidetza Bulegoari zuzenduak, (jatorrizkoa paperean, eta gainera, kopia bat euskarri informatikoan). UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoen zerrenda eskuragarri dago UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako arautegiko, hau da, Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegiko,* ***I. eranskin****ean (2012ko ekainaren 18ko EHAA).*

*5.4. Eskaera eginez gero, deialdia eta horren oinarriak onartzen dira.*

*5.5. UPV/EHUk proposamenen edukia argitu edo zehazteko komenigarria deritzon informazio gehigarria eskatzeko eskubidea gordetzen du beretzat.*

## Seigarrena.- Balorazio-irizpideak

*6.1. Proiektuak deialdi honen zazpigarren oinarrian helburu*

*b) Específica, para las Asociaciones universitarias y ONGD: estas instituciones deberán presentar, además, en ejemplar único o en ficheros adjuntos a la solicitud, la siguiente documentación:*

- *Datos de identificación de la asociación u organización*
- *Fotocopia de sus Estatutos*
- *Certificado de inscripción en el registro de asociaciones de la UPV/EHU o en algún registro de asociaciones sin ánimo de lucro de la CAV*
- *Certificado de acreditación de la persona que ostente la representación legal de la entidad*
- *Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social*

*5.3. Las solicitudes deben presentarse en el Registro General de la UPV/EHU, dirigidas a la Oficina de Cooperación al Desarrollo de esta Universidad (original en papel, además de una copia en un soporte informático). La relación de oficinas del Registro General de la UPV/EHU está disponible en el* **Anexo 1** *del Acuerdo de 16 de mayo de 2012, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro General y de Creación del Registro Electrónico de la UPV/EHU (BOPV de 18 de junio de 2012).*

*5.4. La solicitud supone la aceptación de la convocatoria y sus bases.*

*5.5 La UPV/EHU se reserva el derecho a reclamar la información suplementaria que considere conveniente para aclarar o detallar el contenido de las propuestas.*

## *Sexta. - Criterios de valoración*

*6.1. Los proyectos serán evaluados por la comisión establecida al efecto en la base séptima de esta convocatoria atendiendo*

*horretarako zedarritutako batzordearen balioetsi beharko ditu, kontutan hartuta honako balioespen irizpideok:*

*1. Ekintzarekiko egokitzapena (gehienez, 32 puntu) honetara xehatuta:*

*1.1) Esku hartze egokitasuna: Esku hartzea bat etorriko da 2030 agendan ezarritako GIHak lortzera bideratutako Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren printzipioekin*

*1.2) Garrantzia: Konpondu nahi den arazoaren garrantzia eta proiektua atzemandako problema eta premietarako egokitzen dela justifikatzea (gehienez, 8 puntu).*

*1.3) Bideragarritasuna: Proiektuaren helburuak lortzeko eginkizunak egin eta lortzeko behar diren giza, gizarte, kultura, politika, ekonomia, teknologia eta ingurumen alderdiak aintzat hartu (gehienez, 8 puntu).*

*1.4) Jasangarritasuna: Esku hartzeak eratorritako aldaketa ondorioak noraino manten daitezkeen denboran, ekintza behin amaituta, eta noraino egokitzen den tokiko eragilea eta ondorioak zabaldu eta eraman daitekeen beste tokietara (gehienez, 8 puntu).*

*2. Ekintzaren diseinua (gehienez, 36 puntu) honetara xehatuta:*

*2.1) Formulazioa: argitasun, zehaztasun eta koherentzia gradua proiektuaren formulazioan helburuei, emaitzei, jarduerei eta espero zen inpaktuari dagokienez, eta proiektuaren ebaluazio objektiboa ahalbidetzen duten adierazleen definizioan (gehienez, 20 puntu).*

*2.2) Aurrekontua: zenbateko bideragarria, errealista eta egokia, proiektuaren helburuak lortu ahal izateko. Proiektuaren kostuen eta*

*a los siguientes criterios de evaluación:*

*1. Adecuación a la acción (máximo 32 puntos), desglosados en:*

*1.1) Pertinencia de la intervención: Adecuación de la intervención a los principios de la Cooperación Universitaria para el Desarrollo y para la consecución de los ODS establecidos en la Agenda 2030 (máximo 8 puntos)*

*1.2) Relevancia: Justificación de la importancia del problema a solucionar y adecuación del proyecto a las necesidades y problemas detectados (máximo 8 puntos)*

*1.3) Viabilidad: Consideración de los aspectos socioculturales, políticos, económicos, tecnológicos, ambientales y humanos necesarios para afrontar las tareas y alcanzar los objetivos del proyecto (máximo 8 puntos)*

*1.4) Sostenibilidad: Grado en que los efectos transformadores derivados de la intervención se podrán sostener en el tiempo una vez finalizada la acción y grado de apropiación del socio local y posibilidades de extensión / portabilidad de los resultados. (máximo 8 puntos)*

*2. Diseño de la acción (máximo 36 puntos) desglosados en:*

*2.1) Formulación: Grado de claridad, precisión y coherencia en la formulación del proyecto en cuanto a objetivos, resultados, actividades e impacto esperado, así como en la definición de indicadores que permitan la evaluación objetiva del mismo (máximo 20 puntos)*

*2.2) Presupuesto: importe viable, realista y adecuado para la consecución de los objetivos del proyecto. Relación entre los costes del proyecto y los resultados esperados. (máximo 8 puntos)*

*esperotako emaitzen erlazioa. (gehienez, 8 puntu).*

*2.3) Proiektuaren artikulazio maila, garapenerako lankidetza eta hezkuntzaren arloan UPV/EHUko beste eragile batzuk egiten ari diren edo egingo dituzten beste proiektu batzuekin (gehienez, 8 puntu).*

*3. <u>Lan taldea</u> (gehienez, 32 puntu) honetara xehatuta:*

*3.1) Proiektuaren sustatzaileen gaitasun, esperientzia eta kaudimenaren egokitasuna eta maila, proposatu den proiektua kontutan hartuta (gehienez, 10 puntu).*

*3.2) Unibertsitateko kideen parte hartzea eta diziplinaz bestekotasuna: proiektua garatuta, noraino sustatzen den unibertsitateko kolektibo eta diziplina ezberdinen arteko lankidetza, bai eta lan akademikoak egin daitezen ere: gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, gradu zein graduondoko praktikak eta/edo doktorego tesiak (gehienez, 12 puntu).*

*3.3) Unibertsitateen arteko lankidetza: unibertsitate erakundeen arteko lankidetza lana, UPV/EHUren eta kontraparteko unibertsitateen arteko lankidetza harreman egonkorrak sendotuz (gehienez, 10 puntu).*

*<u>Ezinbesteko baldintza izango da proiektuaren helburuak eta esperotako onurak 2030 agendaren garapen iraunkorrerako helburuetara lerrokatuta izatea</u>.*

**Zazpigarrena.- Eskaeren ebazpena**

*7.1. Erabaki honen 5. oinarrian zehazten diren eskariak aurkezteko epeak bukatuta, 10 eguneko epea emango zaie akatsen bat izan dutenei hori zuzentzeko, akatsa izan dutela adierazten zaien egunetik kontatzen*

*2.3) Grado de articulación del proyecto con otras acciones de cooperación y educación para la transformación realizadas, en ejecución o por realizar, por parte de otros agentes de la UPV/EHU (máximo 8 puntos)*

*3. <u>Equipo de trabajo</u> (máximo 32 puntos), desglosados en:*

*3.1) Idoneidad y grado de capacidad, experiencia y solvencia de las personas promotoras del proyecto, en relación con el proyecto propuesto (máximo 10 puntos)*

*3.2) Participación de la comunidad universitaria y transdisciplinariedad: grado en el que el proyecto fomenta la colaboración entre diferentes colectivos universitarios y de diferentes disciplinas para su ejecución, así como grado en el que facilita la realización de trabajos académicos: trabajos fin de grado, trabajos fin de máster, prácticas de grado o posgrado y/o tesis doctorales (máximo 12 puntos)*

*3.3) Colaboración entre Universidades: trabajo colaborativo entre instituciones universitarias que contribuyan al fortalecimiento de relaciones estables de cooperación entre la UPV/EHU y universidades contrapartes (máximo 10 puntos)*

*<u>Se considera un requisito imprescindible que el proyecto alinee sus objetivos y los beneficios esperables con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030</u>.*

***Séptima. - Resolución de las solicitudes***

*7.1. Finalizados los plazos de presentación de solicitudes señalados en la base 5ª de esta resolución, se concederán 10 días para subsanar los defectos a quienes se les notifique tal circunstancia, con la advertencia de que no hacerlo conlleva que al solicitante se le tenga por desistido*

*hasita. Era berean, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Hori guztia bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 39/2015 Legeko (urriaren 1ekoa) 68. artikuluan zehaztutakorekin.*

*en su solicitud, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

*7.2. Eskariaren akatsak zuzentzeko 10 lanegunen epea amaituta, beren-beregi sortutako ebaluazio batzordea bilduko da Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea buru dela –eginkizun hori Iraunkortasunaren arloko zuzendariari eskuordetu ahal izango diolarik- eta garapenerako lankidetza bulegoko teknikari arduradunak, bertako idazkari gisa arituz, eta Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak izendatutako kide batek edo bik osatuta, garapenerako lankidetzan esperientzia izan eta deialdi honetara aurkeztu ez diren UPV/EHUko langileen artean aukeratuta.*

*7.2. Transcurrido el plazo de 10 días hábiles para subsanar los defectos de la solicitud, se reunirá la Comisión de Evaluación establecida al efecto, presidida por la Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural (que podrá delegar en la Directora de Sostenibilidad), la técnica responsable de la Oficina de Cooperación al Desarrollo, que actuará de secretaria y una o dos personas que actuarán como vocales designadas por la Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural con experiencia en cooperación al desarrollo y que no hayan concurrido a la presente convocatoria.*

*7.3. Batzordeak eskariak aztertuko ditu eta, ezarritako irizpide eta baldintzekin bat etorrita, puntuazioaren arabera ordenatuko ditu eta laguntzaren banaketa proposatuko du; hala dagokionean ere, baztertutako eskaeren zerrenda egingo du. Ondoren, esleipenaren ebazpena bidaliko dio Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeari.*

*7.3. La Comisión examinará las solicitudes y, conforme a los criterios y requisitos establecidos, las ordenará por orden de puntuación proponiendo el reparto de la subvención, y en su caso, la relación de las solicitudes en reserva y desestimadas. Posteriormente, elevará la resolución de adjudicación a la Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural.*

*7.4. Batzordeak proiektu bakoitzari emango zaion laguntzaren zenbatekoa zehaztuko du, eta, hala badagokio, laguntza aplika daitekeen gastu-motak mugatu ahal izango ditu, proiektuan aurkeztutako kontu-sailen artean.*

*7.4. La Comisión determinará la cuantía de la subvención para cada proyecto y en su caso, podrá limitar los tipos de gasto a los que esta se puede aplicar, de entre los presentados en el proyecto.*

*7.5. Berrikuntzaren, Gizarte, Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordeak aginduko du Batzordeak hautatutako proiektuen*

*7.5. La Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural ordenará la publicación de la lista de proyectos seleccionados por la Comisión, en el plazo máximo de dos meses a partir*

*zerrenda argitara dadila, bi hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Garapenerako Lankidetza Bulegoak parte-hartzaileei jakinaraziko die deialdiaren emaitza, baita emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere. Era berean, argitaratu egingo dira Garapenerako Lankidetza Bulegoaren web-orriaren bitartez.*

*7.6. Ebazpenari berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean eta ebazpena egin duen organo beraren aurrean, urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen buruzko Legearen 112 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabeteko epean.*

*7.7 Diru-laguntzaren esleipendunek diru-laguntza onartzeak zera dakar: deialdi honetan ezarritakora lotzea eta bertan adierazitako baldintzak betetzea.*

*de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU notificará a las personas participantes el resultado de la convocatoria, así como el importe de la subvención concedida. De igual modo, se harán públicos los resultados a través de la página web de la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU.*

*7.6. La resolución podrá ser recurrida en reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación y ante el mismo órgano que la ha dictado, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 112 de la Ley 39/2015. De 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; o bien, pero no de manera simultánea, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación.*

*7.7. La aceptación de la ayuda por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a lo establecido en esta convocatoria y al cumplimiento de los términos de la misma.*

## Zortzigarrena.- Ordainketa

*8.1. Proiektua hasi aurretik, diru laguntzaren jasotzaileak proiektua edo ekintza ezarritako epean burutuko duelako konpromisoa sinatu beharko du (**2. eranskina**).*

*8.2. Konpromisoa sinatu ondoren, orokorrean, diru-laguntzaren %50a emango da. Tarteko txostena (**3. eranskina**) eginda, eta Garapenerako Lankidetza Bulegoaren oniritziarekin, gainontzeko %50a ordainduko da.*

*8.3. Ordainketa UPV/EHUren ohiko prozedurei jarraiki egingo da, eta*

## *Octava. - Pago*

*8.1. Previo al inicio del proyecto, la persona receptora de la ayuda firmará un compromiso comprometiéndose a llevar a cabo el proyecto en el plazo fijado (**Anexo 2**).*

*8.2. Tras la firma del compromiso, como regla general, se recibirá el primer pago 50% de la subvención. Una vez realizado el informe intermedio (**Anexo 3**), y tras valoración positiva por la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, se procederá al ingreso del 50% restante*

*8.3. El pago seguirá los procedimientos habituales de la UPV/EHU y se hará*

*banku-transferentzia bidez ordainduko da, edo, hala badagokio, aurrekontu-kodera intsuldaketa eginez, proiektu bakoitzerako soilik irekiko dena.*

**Bederatzigarrena.- Jardueren jarraipena eta justifikazioa**

*9.1. Garapenerako Lankidetza Bulegoak aldizkako harremanetarako sistema bat ezarriko du proiektuen arduradunekin, proiektuen jarraipenean eta ebaluazioan laguntze aldera.*

*Proiektuen arduradunek, proiektua burutzeko adostutako denboraren erdi aldera, tarteko txosten bat aurkeztu beharko dute* **3. eranskinean** *jasotako formularioa baliatuta.*

*9.2 Proiektuen arduradunak jakinaren gainean jarriko du diote UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoa proiektua amaitutakoan eta, handik bi hilabetetara, azken txostena aurkeztu beharko dute,* **4. eranskinarekin** *bat etorrita, eta egindako gastuak jatorrizko fakturen bidez justifikatuz. Faktura hauek, zigilatu ondoren, eskatzaileei itzuli izango zaizkie.*

*9.3. Garapenerako Lankidetza Bulegoak eskatu ahal izango die diru-laguntza honen hartzaileei informazio- edo sentiberatze-saioetan parte har dezaten; horietan aurkeztuko da sortutako dokumentazioa eta ikus-entzunezko material grafikoa. UPV/EHUk material hori erabili ahal izango du jarduerak zabaltzeko dokumentuak prestatzeko, sentiberatze-ekintzak eta -kanpainak egiteko, erakusketak antolatzeko eta urteko jardueren memorian sartzeko.*

*9.4. Eskatutako jarduera guztietan sortzen den dokumentazio osoan, deialdi honen barruan, ezarri beharko*

*efectivo mediante transferencia bancaria o, en su caso, mediante traspaso a la correspondiente clave presupuestaria abierta exclusivamente para cada proyecto.*

***Novena. - Seguimiento y justificación de las actividades***

*9.1. La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU establecerá un sistema de contactos periódicos con las personas responsables de los distintos proyectos, a fin de acompañar la evaluación y el seguimiento de los mismos.*

*Las personas responsables de los proyectos deberán presentar un informe intermedio (siguiendo el formulario incluido en el* ***Anexo 3*** *a estas bases), a la mitad del tiempo acordado para su ejecución.*

*9.2. Las personas responsables de los proyectos han de comunicar a la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU la finalización del mismo, y antes de los dos meses, deberán presentar el informe final (conforme* ***Anexo 4****) y justificar los gastos realizados con la presentación de las facturas originales. Estas facturas, una vez selladas, serán devueltas a los solicitantes.*

*9.3. La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU podrá requerir al personal receptor de esta ayuda su asistencia a las sesiones informativas o de sensibilización, donde se presentará el material gráfico-audiovisual y la documentación que hayan generado. La UPV/EHU podrá utilizar este material para preparar documentos de difusión de actividades, realizar acciones y campañas de sensibilización, organizar exposiciones e incluirlo en su memoria anual de actividades.*

*9.4. En toda la documentación que se genere de las actividades solicitadas, en el marco de esta convocatoria, habrá de constar que se han llevado a término con*

*da UPV/EHUren Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearen diru laguntzarekin burutu direla.*

**Hamargarrena.- Diru-laguntzak baliogabetzea**

*10.1. Jardueren edukiari edo gauzatze-egutegiari buruzko zeinahi aldaketa Garapenerako Lankidetza Bulegoari jakinarazi beharko zaio nahikoa aurrerapenarekin, hark dagokion baimena eman dezan.*

*10.2 Berrikuntzaren, Gizarte, Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak, Garapenerako Lankidetza Bulegoak arrazoitutako proposamenez, emandako laguntza osoa edo haren zati bat baliogabetu ahal izango du, ezarritako baldintzak errespetatzen ez badira edo proiektuen edukia nabarmen aldatzen bada, eta behin-behineko edo funtsezko aldaketak aldez aurretik jakinarazi eta baimendu ez badira.*

*10.3 Deialdi honetako oinarrietan aurreikusi gabekoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretua eta azaroaren 18ko, 38/2003 lege Orokor Diru-Laguntzetakoa aplikatuko dira.*

*10.4. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean (urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen buruzko Legearen 112 artikulua), edo, bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian,*

*la subvención del Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural de la UPV/EHU.*

***Decima. - Revocación de las subvenciones***

*10.1. Cualquier cambio sobre el contenido de las actividades o sobre el calendario de ejecución habrá de ser comunicado a la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU con la antelación suficiente a los efectos de emitir la correspondiente autorización.*

*10.2. La Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural a propuesta motivada de la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, podrá revocar total o parcialmente la subvención concedida cuando no se respeten los términos establecidos o cuando se modifique significativamente el contenido de los proyectos, y cuando aquellas alteraciones temporales o sustantivas no hayan sido previamente comunicadas y autorizadas.*

*10.3. En lo no previsto en las bases de esta convocatoria será de aplicación el Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y la Ley 38/2003, de 18 de noviembre, General de Subvenciones.*

*10.4. Contra la presente resolución se podrá interponer el correspondiente recurso potestativo de reposición desde el día siguiente a su publicación en el plazo de un mes (artículo 112 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común las Administraciones Públicas), o bien, pero no de manera simultánea, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente*

*argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabeteko epean.*

*Leioan, 2018ko ekainaren 19an*

*a la fecha de su publicación.*

*En Leioa, a 19 de junio de 2018*

*Sin. Fdo.: Idoia Fernandez Fernandez*
*UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren errektoreordea / Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural*